

TXOSTENA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko 6. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde aurreko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Foru lege aurreproiektu honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tasa eta prezio publikoari buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea berregituratzea, tasak gaien arabera antolatzeko, haiek kudeatzeko eskumena duten departamentuen arabera antolatu ordez.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tasa eta prezio publikoari buruzko foru lege aurreproiektua bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluko 6. apartatuaren edukiarekin hitzez hitz, aurreproiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkiete betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira.

Hori hala izanik ere, foru dekretuaren aurreproiektua jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverdek, Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.